Bilbon, 2026ko azaroaren 25ean.

Juan Mari Aburto Rike, Bilboko alkatea

Eider Bilbao Aldayturriaga, Bilboko Udal Eskola Kontseiluko lehendakaria

Alkate agurgarria, lehendakari agurgarria:

Bilboko Udal Eskola Kontseiluan familiak ordezkatzen ditugunok gure kezka sakona adierazi nahi diogu Udalari. Izan ere, duela hilabete batzuetatik hona, gure seme-alabak higiene- eta osasun-baldintza eskasetan ari dira eskolara joaten, Bilboko ikastetxe publikoetako garbiketa-zerbitzuko grebaren ondorioz.

Hasiera-hasieratik argi utzi nahi dugu gure kexa ez dela garbiketako langileen aurkakoa. Erabat ulertzen eta errespetatzen dugu langileek bidezkotzat jotzen dituzten soldata- eta lan-baldintzen hobekuntzak aldarrikatzeko greba egiteko duten eskubidea. Badakigu haiek zaindu izan dituztela, eguneroko ahaleginari esker eta lan-baldintza eskasetan, gure seme-alabek eskola-egunaren zati handi bat igarotzen duten guneak. Haien protestak agerian uzten du alde batera utzi ezin dugun egiturazko arazo bat.

Hala ere, gure eskoletan egunero bizi dugun egoera jasanezina da. Ezarritako gutxieneko zerbitzuak behar bezala betetzea espero dugu. Bitartean, zaborra pilatzen ari da ikasgeletan, korridoreetan eta patioetan, eta gimnasioetan eta komunetan ez dira oinarrizko higiene-baldintzak betetzen. Bilboko eskola publikoetako familia askok egindako bideoek eta argazkiek erakusten dute egoera hori. Horietako batzuk idazki honi erantsi dizkiogu.

Egoera horrek arriskuan jartzen ditu gure seme-alaben osasuna eta segurtasuna. Beste behin ere, haiek pairatzen dituzte konpontzea ez dagokien gatazka baten ondorioak. Egoerak irakasleei eta gainerako hezkuntza-langileei ere eragiten die, gutxieneko higiene-baldintzak betetzen ez diren guneetan lan egin behar baitute.

Gure ustez, Udala da ikastetxe publikoetan garbiketa zerbitzua kontratatzeko eta ikuskatzeko eskumena duen administrazioa, eta prestazio hori FCC enpresari esternalizatu dio

Zerbitzua behar bezala ematen dela eta enpresa esleipendunak lan-betebeharrak eta zerbitzuaren kalitate-baldintzak betetzen dituela bermatzeko azken erantzukizuna Udalari dagokio. Udalak interes orokorra eta, kasu honetan, haurren ongizatea zaindu behar ditu. Horretarako, ziurtatu behar du enpresak langileei lan-baldintza duinak eskaintzen dizkiela eta zerbitzu eraginkorra eta segurua ematen duela.

Familia askok banakako kexak aurkeztu ditugu hainbat bidetatik, besteak beste, Udalaren webgunearen eta 010 telefonoaren bidez. Urriaren 29ko osoko bilkuran, alkateak arbitraje- edo bitartekaritza-prozesu bat abiatzeko konpromisoa hartu zuen. Ordutik, ez dugu Udalaren konpromiso irmorik ikusi FCCri eskatzeko garbiketako langileen aldarrikapenak aintzat har ditzala eta gatazkari amaiera emateko urratsak egin ditzala. Udalaren bitartekaritzarik eta neurri eraginkorrik gabe, egoera luzatzen ari da, eta premiazkoa da konponbidea bilatzea.

Horregatik, hainbat guraso-elkartek protesta-kontzentrazioak antolatu dituzte ikastetxeetan eta udaletxearen aurrean, gure ezinegona adierazteko, egoera jendaurrean salatzeko eta erantzukizunak eskatzeko. Guraso askok bat egin dugu mobilizazio horiekin. Era berean, Bilboko eskola publikoetako guraso-elkarteak BIGErekin ari dira lanean, kezkak partekatzeko eta elkarrekin zer egin dezaketen aztertzeko.

Eskola PublikoetakoFamilien ordezkari garen aldetik, ez gara besoak gurutzatuta geratuko. Gure seme-alaben osasuna babesteko beharrezkotzat jotzen ditugun mobilizazioak bultzatuko eta babestuko ditugu.

Horregatik, honako hau eskatzen diogu Bilboko Udalari:

- Gutxieneko zerbitzuak betetzen direla egiaztatzea eta egiaztapen horren emaitzaren eta ikastetxeetako egungo higiene-baldintzen berri ematea.
- Joan den urriaren 29an egindako osoko bilkuran agindutako arbitraje-prozedura aktibatzea eta IGEei egungo negoziazioaren egoeraren berri ematea.
- Bilera bat deitzea eskola publikoko-komunitateari hartutako neurrien berri emateko edo, bestela, neurri horiek idatziz jakinaraztea.

Espero dugu, Udalak, gutun hau gaiak eskatzen duen seriotasunez hartzea eta, behingoz, hezkuntza komunitateak merezi duen prestutasunez eta arduraz jokatzea. Zure esanetara gaude egoki deritzozun edozein bilera edo argibidetarako.

Adeitasunez,

Bilboko Udal Eskola Kontseiluko familien ordezkariak

Juan Mari Aburto Rike, alcalde de Bilbao

Eider Bilbao Aldayturriaga, presidenta del Consejo Escolar Municipal de Bilbao

Estimado alcalde, estimada presidenta:

Las personas que representamos a las familias en el Consejo Escolar Municipal de Bilbao queremos trasladar al Ayuntamiento nuestra profunda preocupación por las condiciones higiénico-sanitarias que padecen nuestros hijos e hijas desde hace ya varios meses como consecuencia de la huelga del servicio de limpieza en los centros educativos públicos de este municipio.

Queremos dejar constancia, desde el primer momento, de que no dirigimos nuestra queja contra las trabajadoras de la limpieza. Entendemos y respetamos plenamente su derecho legítimo a la huelga para reivindicar mejoras salariales y laborales que consideran justas. Somos conscientes de que son ellas quienes, con su esfuerzo diario y en condiciones precarias, han velado tradicionalmente por la salubridad de los espacios donde nuestras hijas e hijos pasan gran parte de su jornada. Su protesta es un síntoma de un problema estructural que no podemos obviar.

Sin embargo, la realidad que vivimos a diario en nuestras escuelas es insostenible. A pesar de los servicios mínimos establecidos, que esperamos se cumplan correctamente, la basura se acumula en las aulas, pasillos y patios mientras que los gimnasios y los baños carecen de las condiciones higiénicas básicas. Prueba de ello son numerosos vídeos y fotografías tomados por muchas de las familias de las escuelas públicas de Bilbao, parte de los cuáles adjuntamos en este comunicado.

Esta situación supone un riesgo evidente para la salud y la seguridad de los niños y niñas, que son, una vez más, quienes pagan las consecuencias de un conflicto que no les corresponde resolver. Tampoco podemos olvidar el impacto en el profesorado y en el resto del personal educativo, que debe desarrollar su labor en un entorno que no reúne las mínimas garantías de salubridad.

Entendemos que el Ayuntamiento es la administración competente para contratar y supervisar el servicio de limpieza en los centros educativos públicos, y que ha externalizado dicha prestación a la empresa FCC. No obstante, la responsabilidad última de que el servicio se preste en condiciones óptimas y de que la contrata cumpla con las obligaciones laborales y de calidad recae sobre el Ayuntamiento. Es éste quien debe velar por el interés general y, en este caso, por el bienestar de la infancia, asegurándose de que la empresa subcontratada ofrezca unas condiciones dignas a sus trabajadoras y, al mismo tiempo, garantice un servicio eficaz y seguro.

A pesar de las numerosas quejas individuales que las familias hemos interpuesto a través de diferentes canales (web municipal, teléfono 010…) y el compromiso del alcalde en el pleno anterior con iniciar un proceso de arbitraje o mediación, no hemos

percibido hasta la fecha un compromiso firme por parte de esta área para exigir a FCC que atienda las reivindicaciones del personal de limpieza y ponga fin al conflicto. La falta de mediación y de acción efectiva por parte del Ayuntamiento perpetúa una situación que se alarga innecesariamente, y que clama por una solución urgente.

Por todo ello, varias AMPA hemos organizado concentraciones de protesta en nuestra escuelas y frente del ayuntamiento, para visibilizar nuestro malestar, denunciar públicamente esta situación y exigir responsabilidades. Movilizaciones a las que muchos padres y madres se han ido sumando. Asimismo, las AMPA de las escuelas públicas de Bilbao también están trabajando con BIGE para compartir sus preocupaciones y valorar acciones conjuntas.

Nuestra intención como representantes de las familias es no quedarnos de brazos cruzados y emprender y apoyar las movilizaciones que consideremos necesarias para proteger la salud de nuestras hijas e hijos

En consecuencia, solicitamos formalmente que el Ayuntamiento de Bilbao atienda las siguientes demandas:

- Verificar el efectivo cumplimiento de los servicios mínimos e informar del resultado y de la situación de salubridad actual en los centros escolares.
- Activar el procedimiento de arbitraje prometido en el pleno celebrado el pasado 29 de octubre e informar a las AMPA del estado de la negociación actual.
- Convocar una reunión para informar a la comunidad escolar de las medidas adoptadas o, en su defecto, comunicarlo por escrito.

Confiamos en que esta carta sea recibida con la seriedad que el asunto requiere y que, de una vez por todas, se actúe con la diligencia y responsabilidad que la comunidad educativa merece. Quedamos a su disposición para cualquier reunión o aclaración que consideren oportuna.

Atentamente,

Las personas representantes de las familias de escuelas públicas en el Consejo Escolar Municipal de Bilbao